



ERAIKUNTZA, OBRA ETA INSTALAZIOEN GAINEKO ZERGA

	<u>Tipoak</u>
Etxebizitzak	5,00%
Merkataritza eraikuntzak	5,00%
Eraikin industrialak	5,00%
Landalur eraikinak edo Nekazal probetxamenduzkoak	5,00%
Erauzketak	5,00%
Etxebizitzen birgaiketa eta merkataritza lokalen modernizatzea, 45 urte baino gehiagoko aintzinasuna duten eraikinetan (1974. urtea baino lehenagokoak)	2%

HOBARIAK

a) 100eko 95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean, etxebizitza babestu berrien eraikuntza barne, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena eta hobariaren ehunekoa Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

Udalarentzat interes berezikotzat izendatzea, hobari honetaz gozatu ahal izateko:

1.- Berriak ez diren eta halako elementurik ez duten higiezinetan igogailuak, arrapalak, plataforma jasotzaileak eta antzeko elementuak jartzea.

Ez zaie izendapen hori ematen etxebizitzen barruan elementu horiek instalatzeko obrei. Hobaria: % 95.

2.- Udalarekin batera, kultura eta kirol jarduerak burutzen dituzten udal elkarteek, bere jarduera aurrera eramateko dituzten lokaletan, egiten dituzten obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatzea (2012-04-26 ko Udalbatzaren erabakia):

- Bakarrik, kultura eta kirol jarduerak burutzeko lokaletan egindako obrak: %95.

- Kultura eta kirol jarduerak bakarrik burutzen ez diren lokaletan egindako obrak: %45.

3.- 2006-12-29 Aginduaren eta ondorengo aldaketetan (ETXEBIZITZAK BIRGAITZEKO 2013-2016 ALDIRAKO RENOVE PLANA) araututako laguntzak (dirulaguntza edota mailegua) jaso dituzten obra edo jardunak. Hobaria: %95.



Beasaingo udala

4.- Aisirako gazteen lokaletan egiten dituzten obrak. Hobaria: %95.

5.- Ondorengo hezkuntza zentroek egiten dituzten obrak: Beasaingo Institutua BIP, Seazka Hurrekola, Alkartasuna Lizeoa, Murumendi ikastetxea, Andramendi ikastola, La Salle-San Jose ikastetxea eta A.E.K. Hobaria: %95

b) %90eko hobaria, eraikuntza, instalazio edo obrek pertsona ezindu edo mendekotasuna duten pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazten dituztenean.

Eskatutako dokumentazioa

- Eskaera behar bezala beteta.

-Mendekotasuna edo minusbaliatasun maila aitortzen duen ebazpena.

- Gipuzkoako Foru Aldundiak igorritako laguntza teknikoa jasotzearen aldekoa den orientazio-txostena.

c) %95eko hobaria, baldin eta eraikuntza, instalazio edo obretan eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzen badira autokontsumoari begira. Dena den, hobari hau aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da beroa sortzeko instalazioak Administrazio eskudunak homologatutako kolektoreekin hornituta egotea eta instalazioa borondatezkoa izatea eta ez araudiak hala behartutakoa.

Aurreko hobariak, elkarren artean, batera ezinak izango dira.

%2 zerga tipoaren aplikazioari dagokionez, etxebizitzaren birgaiketa eta merkataritza lokalen modernizatzea ondoren adierazten den moduan ulertzen da: erreforma lanak suposatzen dutelarik, %50 baino gehiagoko egitura-elementuak afektatzen ez dituztenean eta goi mailako teknikoaren proiektua behar ez denean.

Jarduera berria jartzeko edota jarduera aldatzeko, lokaletan itxuratze lanak egin behar direnean, %5eko tipo orokorra aplikatuko da.

Beasain, 2.018ko iraila